



E r l e a k

Eli Pagola Apezetxea

Miragarria da natura, atomo txikienetik unibertso amaitezineraino. Bizidun talde bakoitzaren funtzionamendua ere, bai bitxia!

***Doinua: Haizeak bidali du
Zortziko txikia***

**Xomorro kuxkuxero
bat baldin bazara
zatoz, hurbildu zaitez
gure erlauntzara**

- 1 Langile, erlamando eta **erregina** erle bakoitzak badu bere **zeregina** polinizatzen egin arren **ahalegina** inork ez gaitu maite eztia **adina**.
- 2 Lorerik lore hegan bitzta **zoroan** 40.000 erle elkarren **ondoan** polena jasotzera nondik nora **joan** komunikatzen dugu samba **erritmoan**.
- 3 Neguan gosetuko al garen **beldurrez** elkarbanatzen dugu listua **muturrez** ezti bihurtuz nektar soila zena **aurrez** abaraxka guztiak betetzeko **urrez**.
- 4 Erlezaina jartzean erlauntzaren **aurka** dirudi ilargira doan **astronauta** berarentzat nahi badu eztiaren **mauka** gure ziztada ondo merezia **dauka**.

**Baina zakar bazatoz
gure erlauntzara
zu ere ziztatuta
itzuliko zara**